

MUNDAKAKO I. "ONLINE" SURF TXAPELKETAREN OINARRIAK

Antolatzaileak: Mundakako Udala – Ayuntamiento de Mundaka

Mundakako Surf Taldea (Mundaka Surf Club)

Babesleak: Industria, Merkataritza eta Turismo Saila (Eusko Jaurlaritza)

Energiaren Euskal Erakundea – EEE

Basquetour (SurfingEuskadi)

Sponsor: Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia

Billabong

Laguntzaileak: BITTEK, Soluciones Tecnológicas, S.L.

BiscayTIK Fundazioa

Martín Ugalde jauna

Lehiaketaren xedea: Mundakako I. "online" Surf Txapelketa "hodi" hoberena grabatzen duten surflari eta kameralariak irabaziko dute. Olatua Mundakako barran grabatuko da eta ohiko arraukada metodoa erabiliko da.

Beraz, saria olatua hartzen duen surflariak zein irudiak grabatzen dituen kameralariak irabaziko dute.

Datak: Bideoak lehiaketa honetarako parte-hartzaileen esku jarriko den webgunera bidaliko dira soilik (www.mundakatubes.biz) 2011ko abenduaren 1eko 0:00etatik 2012ko urtarrilaren 13ko 0:00etara, eta balioko duten bideo bakarrak egun horien artean hartutako olatuenak izango dira.

Hala ere, ezin izango da Mundakan ospatuko den Euskal Zirkuituko Finalaren egunetan hartutako olatuekin parte-hartu (abenduaren 2, 3, 4, 16, 17 eta 18).

Parte-hartzaileak: Lehiaketako partaidetza unibertsala izango da. Lehiaketa honetarako zehaztu den webgunean (www.mundakatubes.biz) eta epean eskaera aurkezten duen edozein pertsonak parte hartu ahal izango du.

Izena ematea: Webgune bat sortu da (www.mundakatubes.biz) parte-hartzaileentzaileek izena eman dezaten. Bertan eskatzen diren derrigorrezko eremuak, eskubideak lagatzeko baimena eta datuak lagatzeko baimena bete ondoren, parte-hartzaile bakoitzari bere erabiltzaile-kodea eta pasahitza emango zaizkie eta partaide bakoitzak kudea dezakeen "micrositea" sortuko da.

Hau da, webgunean parte-hartzaile bakoitzaren micrositea (bere datuekin) eratu ondoren, partaide bakoitzak nahi bezala kudeatu ahal izango du bere curriculuma edo bere surf-historiari buruzko sarrera txiki batekin (gehienez 200 karaktere). Micrositera igotzen dituen bideoak ere kudeatu ahal izango ditu bidalitako bideoak ezabatuz, bideo gehiago aurkeztuz edo ezabatutakoak ordezkatzuz, betiere gehienez bost bideo izan ditzakela kontuan hartuta. Izen-ematea erazteko, ordenagailu bat jarriko da Mundakako turismo bulegoan. Bulegoa zabalik dagoenean (itxita egongo da abenduaren 15tik 20ra eta jaiegunetan), parte-hartzaileek ordenagailua erabili ahal izango dute izena emateko eta micrositeak kudeatzeko.

Parte hartzeko baldintzak:

a) Parte-hartzaile guztiak, surflariak zein kameralariak, adinez nagusiak izan beharko dira eta ahalmen osoz jokatzeko gaitasuna izan beharko dute legedi zibilaren arabera.

b) Parte-hartzaile guztiak www.mundakatubes.biz webguneko formularioa bete beharko dute eta derrigorrezkoak diren eremuak bete beharko dituzte.

Derrigorrez adierazi beharko dira surflari eta kameralariaren izenak eta bi abizen, NAN zenbakiak, bizilekuak eta adinak. Halaber, datu eta bideoak lagatzeko eta argitaratzeko baimena eman beharko da, baita aurkeztutako bideoak erabiltzeko eta hedatzeko baimena ere, oinarri hauen irakurpen eta onarpenaren ondoriozkoak.

Horrez gain, surflari eta kameralariak euren Nortasun-Agiri Nazionala edo Pasaporte bi aldeetatik eskaneatu eta bidaltzeko aukera izango dute.

Derrigorrez bete behar den eremuren bat betetzen ez bada edo datu faltsuekin betetzen bada, parte-hartzailea zuzenean geratuko da lehiaketatik kanpo eta ez du saria jasotzeko eskubiderik izango.

Gainera, parte-hartzailearen aurpegia argi erakusten duen argazki bat aurkeztu ahal izango da, bai eskaneatuta bai formatu digitalean.

c) Irudiak egin dituen kameralariarenak diren arren, lehiaketan izena ematean kameralariak eta surflariak berariaz baimentzen dituzte antolatzaileek lehiaketan aurkeztutako bideoekin egin ditzaketen erabilerak, hedatzeak, banaketak, erakusketak, jakinarazpen publikoak, jendarteratzeak eta erreproduzioak. Bideoak epe mugagabea jarri ahal izango dira lehiaketarako sortu den webgunean edo antolatzaileen webguneetan.

Halaber, parte-hartzaileek bideoak erabiltzeko, hedatzeko, banatzeko, erakusteko, publikoki jakinarazteko, jendarteratzeko eta erreproduzitzeko baimena ematen dute hartara txapelketa, Mundakako turismoa eta, oro har, antolatzaileak sustatzeko.

d) Bideoak eta adierazten diren datak benetakoak izango dira.

Lehiaketan onartzeko, bideoek olatuen hasiera eta amaiera erakutsi beharko dituzte.

Olatua ez dela kiroltasun ezan oinarritutako jardueraz hasi frogatu beharko da (beste surflari baten lehentasuna ez dela urratu), baita hodia arrakastaz bukatzen dela ere.

Irudiak uretatik kanpo grabatu beharko dira, horrela parte-hartzaile guztien ikuspuntu nahiz perspektiba berdinduko baitira.

Bideoaren egiazkotasuna zalantzan jartzen bada, parte-hartzaileei dokumentu edo agiriak eskatu ahal izango zaizkie.

e) Edozein surflari parte-hartzailek bideo bat baino gehiago bidali ahal izango du. Bost bideo bidali daitezke gehienez.

Halaber, eskaera batean olatu beraren irudi desberdinak erakusten dituzten kameralari desberdinen bideoak aurkeztu ahal izango dira. Multzo osoak eskaera bakarria osatuko du eta sari bakarria irabazi ahal izango du.

f) Irudien kalitatea: kalitate oneko irudiak onartuko dira soilik. Bideoek irudi argi eta zalantza gabeak izango dituzte eta garbi erakutsiko dituzte saioa-data eta olatuan doan surfalaria.

Edozein formatu digital onartuko da irudiak web bidez zein gutxieneko kalitatea eskatzen duten beste kanalen bidez hedatu ahal izateko.

Dena den, fitxategiek sistemak onartzen duen eta webgunearen laguntza teknikoak adierazten duen gehieneko neurria errespetatu beharko dute.

g) Irudien gaineko eskubideak Txapelketari bakarrik lagatzen zaizkionez, bidalitako irudiak eta bideoetako olatuak ez dira beste lehiaketa edo txapelketetan erabilitakoak izango eta ezin izango dira etorkizunean beste lehiaketa edo ekitaldietan aurkeztu. Aurrekoa beteko ez balitz, antolatzaileek bideoa lehiaketatik kanporatzeko eskubidea izango lukete.

Formatua: Parte-hartzaile bakoitzak gehienez minutu 1eko iraunaldia duen bideo bat bidali beharko du gutxienez, eta bideoan Mundakako barrako olatu batean hodia egiten agertu beharko da.

Bideo horrek hiru atal izan beharko ditu: takeoff argia (beste baten lehenasuna urratu gabe), hodia, irteera arrakastatsua.

Bideoak ez du etenik izango eta edozein formatu digitaletan bidali ahal izango da. Hala ere, bereizmen handian bidaltzea gomendatzen da.

Epaimahaia: Epaimahaia 5 kide izango ditu eta horietako bakoitzak boto bana izango du:

- Mundakako Udaleko ordezkari 1
- Mundakako Surf Taldeko ordezkari 2
- Billabong-eko ordezkari 2

Epaimahaiko kideak eta beren senideek (laugarren mailako zehar-ahaidetasuna arte) ezin izango dute lehiaketa honetan parte hartu.

Parte har dezaketen bideoak: Parte hartu ahal izateko, bideoek Mundakako barrako olatuak erakutsi beharko dituzte eta lehiaketa egiteko sortu den webgunera bidali beharko dira lehenago adierazitako epean.

Ondorioz, parte hartzen duten bideo guztiek hodi bat izango dute.

Bideoak parte-hartzaile bakoitzaren micrositera igotzen direnean, grabatutako olatuaren data zehatza eta gutxi gorabeherako ordua adierazi beharko dira.

Uretatik kanpo grabatutako bideoak onartuko dira soilik. Ikuspuntu edo perspektiba desberdinak saihesteko, irudiak talaiako triangulutik edo Herrera kaiaren eremutik hartzea gomendatzen da.

Halaber, bideoa onartutzat hartzeko surfalaria surf-oholaren gainean aritu beharko da. Ez dira onartuko “boogey-ak”, “kayak-ak”, kanoak edo “standup-ak” erabiltzen dituzten parte-hartzaileak.

Azkenik, bideoetan ezin izango dira agertu, ez zuzenean ezta zeharka ere, adinez txikiak edo adimen-urritasunak dituzten pertsonak. Horrez gain, ezin izango dira hirugarrenen legez babestutako eskubideak kaltetu edo lesionatu, ez zuzenean ezta zeharka ere.

Parte-hartzailea izango da bere filmazioek, oharrek edo testuek hirugarrenen ondasunetan edo eskubideetan eragin ditzaketan kalteen edo lesioen arduradun zuzena.

Parte hartzeko arauak:

1. Segurtasuna eta adeitasuna: Lehiaketa honek kirolean aritzeko segurtasuna eta kiroltasuna bilatzen ditu. Ekintza arriskutsuak, adeigabeak edo kiroltasunik gabekoak guztiz debekatuta daude eta ezin izango dira sarituak izan. Hori dela eta, horrelako ekintzak jasotzen dituzten bideoak lehiaketatik baztertu ahal izango dira epaimahaiak hala eskatuz gero.

2. Iruzurra: Ordenagailu-tekniken bidez irudiak aldatzea iruzurra izan daiteke. Irudien egiazkotasunaren gainean ager daitezkeen zentzuzko zalantzek irudien berrebaluazioa eragingo dute, eta ondorioz bideo horiek baztertu ahal izango dira.

Egiatzkotasunari buruzko zalantzak badaude, parte-hartzaileei jatorrizko fitxategia eta irudiak grabatu dituen kamera epaimahaiaren esku jartzeko eskatu ahal izango zaie, baita bestelako froga gehigarrien aurkezpena ere.

3. Lehiaketako webgunera igotzen diren bideo edo oharrek ezin izango dute hitz iraingarririk edo sentikortasunari min eman diezaiokeen irudirik eduki, ezta hirugarrenen edo kolektiboen eskubideak nolabait lesiona ditzakeen irudirik ere.

Aipatutako edukiak jartzeak parte-hartzailearen kanporatzea ekar dezake. Hala gertatuko balitz, parte-hartzailearen profila eta berak bidalitako bideoak automatikoki ezabatuko lirateke eta ezin izango luke berriro izena eman.

4. Edozein parte-hartzailek (zein surflari zein kameralari) behin bakarrik eman ahal izango du izena. Beraz, ezin izango du beste kide batekin lehiaketan parte hartu.

Puntuazio-irizpideak: Puntuak jaso ahal izateko, bideoak surf-ohola erabiltzen duen surflari bat erakutsiko du hodia egiten.

Epaimahaiak hurrengo irizpideen arabera emango ditu puntuak:

- Takeoff estua
- Olatuaren zailtasuna
- Hodiaren sakonera
- Hodiaren luzeera
- Olatuaren bertikaltasuna
- Hoditik irteera garbia
- Surflariaren estiloa

Bideoak kanporatzeko irizpideak:

Ondorengo baldintzak betetzen dituzten bideoak zuzenean baztertuko dira:

- Saioan portaera desegokia erakustea (beste baten lehentasuna urratzea). Surflariaren joko garbia saio osoan zehar baloratuko da.
- Grabazio-datari buruzko zentzuzko zalantza.

Sariak:

Surflari eta kameralari guztiak kategoría berean lehiatuko direnez, sariak-banaketa kategoría bakarrean egingo da:

- LEHENENGO SARIA: – 6.000,00.- € surflariarentzat eta 1.500,00.- € kameralariarentzat. Txapela. Wildcard bat 2012an ospatuko den Billabong ekitaldirako. – Wildcard gonbidapen bat eskaintzen du 2012an Mundakan ospatuko den txapelketarako.
- BIGARREN SARIA: 2.750,00.- € surflariarentzat eta 750,00.- € kameralariarentzat. Garaikurra.
- HIRUGARREN SARIA: 1.350,00 € surflariarentzat eta 400,00.- € kameralariarentzat. Garaikurra.

Aipatutako hiru sariak surflari parte-hartzaile desberdinentzat izango dira, bakoitzak microsite batekin parte hartu ahal izango du eta gehienez bost bideo aurkeztu ahal izango ditu, horietako batek bakarrik jaso ahal izango du saria. Kameralariek surflari desberdinekin parte hartu ahal izango dute eta sari bat baino gehiago eskuratu ahal izango dituzte.

- ONLINE IKUSLEEN SARIA: “Tablet” bat surflariarentzat eta bereizmen handiko bideokamera digital bat kameralariarentzat. Sari hau aurreko hiru sarien irabazleetako bati eman ahalko zaio, eta beraz, metagarria izan daiteke.

Sarituak aukeratzeko sistema:

Bi kategoría egongo dira: lehiaketa orokorrarena eta “online” dauden ikusleen botoen bidez egiten dena.

Lehiaketa orokorreko sariak honela banatuko dira:

1.- Epea ixten denean, Mundakako Udalak, BiscayTIK Fundazioaren bitartez, oinarrietako baldintzak bete dituzten parte-hartzaileen datuen, bideoen eta daten egiazkotasuna balioztatuko du. Hori egiteko 3 lanegun izango ditu.

Aipatu fundazio teknologikoak data, olatua hartzean adierazitako lekua edo parte-hartzailearen nortasuna faltsuak direla uste izango balu, parte-hartzaileari grabaketa osoa eta grabaketa egiteko erabili duen baliabidea aurkezteko eska liezaioke horiek aztertzeo, baita egoki deritzon beste edozein froga ere.

Eskatutako frogak dagokion epean aurkeztea ezeztatuko balu, parte-hartzailea lehiaketatik kanpo geratuko da zuzenean, eta bere atal eta bideoak webgunetik kenduko dira.

Aurkeztutako bideoak aztertu eta onartu ondoren, parte hartzen duten bideo guztiak DVD batean sartu eta epaimahaiari bidaliko zaizkio finalistak aukeratzeko bilera baino hiru lanegun lehenago gutxienez.

2.- Finalisten aukeraketa:

Epaimahaia Mundakako Udalean bilduko da aurkeztutako bideoak batera baloratzeko, lehiaketaren oinarri hauetan ezarritako puntuazio-irizpideak oinarritzat hartuz.

Lehenengo bozketan ez bada aho batez ados jartzen, bigarren analisi eta eztabaida bat egingo dute eta ondoren bigarren bozketak egingo dute. Gehiengoaren iritzia onetsiko da eta epaimahaiaren epaitza erabakigarria eta loteslea izango da.

Online egingo den lehiaketako saria honela emango da:

Parte-hartzaileek euren micrositara igotzen dituzten bideoak ikusgai bezala konfiguratzeko badituzte, online ikusteko moduan egongo dira. Beraz, lehiaketako webgunera sartzen diren pertsonak bideo horiek ikusi eta bozkatzeko aukera izango dute.

Ikusleek webgunean ezarritako sistemaren bidez botoa eman ondoren puntuazio handiena lortzen duen bideoak saria irabaziko du.

Publizitatea eta sari-banaketa:

Epaimahaiaren azken erabakia eta sarituen izenak Mundakan jakinaraziko dira 2012ko urtarrilaren 17tik 21era bitartean egingo den ekitaldian. Sarituei bi eguneko aurrerapenarekin jakinaraziko zaie, saria jasotzeko ekitaldira bertaratu beharko dira eta.

Sarituak ordezkari bat bidal lezake soilik osasun-arrazoia direla medio ezin dela bertaratu egiaztatzen duen medikuaren frogagiria aurkezten badu. Kasu horretan, ordezkariak notario-ahalorde baliaduna, askia eta zehatza aurkeztu beharko du saria jasotzeko.

Sarituren bat aurkezten ez bada, lehiaketako sariaren zenbatekoa tokiko surf elkarteari emango zaio Mundakako Udalak laga dizkion instalazioetan hobekuntzak egin dituzan.

Online dauden ikusleek bozkatzeko duten sariaren irabazlea webgune honen bidez ezagutaraziko da sari-banaketa baino berrogeita zortzi ordu lehenago.

Ondorioz, saria jasotzeko bertaratzeko ez den parte-hartzaileak sariari uko egingo dio, eta beraz antolatzaileak oinarri hauetan ezarri bezala erabili ahalko du.

Eskubideen erreserba: Ekitaldi honetako arau eta formatuak eskusiboak dira eta ezin dira baimenik gabe kopiatu.

Halaber, webgunea egiteko laga diren irudiak ezin izango dira erabili, kopiatu edo erreproduzitu horien titular den Martín Ugalde jaunaren berriazko baimenik gabe.

Legezko Oinarriak:

- Parte-hartzaileak oinarri hauetan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren lanen jabetza intelektualari dagozkion eskubideen legezko titularrak izan beharko dira. Lanak titular bat baino baino gehiago badu, izena ematen duen parte-hartzailea egileetako bat izan beharko da eta lanean agertzen diren gainerako pertsona fisikoen baimena izan beharko du. Horrez gain, oinarri hauek eta saria guztion izenean kobratzeko sistema onartu beharko ditu.

Antolatzaileak parte-hartzaileei beraien titulartasuna frogatzeko eskatu ahal izango die. Egile bat baino gehiago egotekotan, lana txapelketan sartzeko gainerako egileen baimena aurkeztu beharko da aurreko paragrafoan azaldutako moduan.

- Txapelketan parte hartzean, egileak ulertu eta onartu egiten du bidalitako bideoak Mundakako Udalaren fitxategietan sartuko direla eta lanak erabiltzeko, hedatzeko, banatzeko, erakusteko, publikoki jakinarazteko, jendarteratzeko eta erreproduzitzeko eskubidea izango dutela bai beraien webguneetan, bai Youtuben, bai beste edozein bitarteko digital edo inprimatuan. Lanak txapelketari eta lanari berari publikitatea

egiteko erabiliko dira, betiere egilea edo egileak adieraziz. Lanak Basquetourri edo Bizkaiko Foru Aldundiari laga ahal izango zaizkie munduko edozein herrialdetan turismoa sustatzeko, Europar Batasunaren barnekoetan zein Europar Batasunetik kanpo daudenetan. Antolatzaileak aurruposatzen du egileak aurkeztutako bideoetan agertzen diren pertsonen baimena duela. Antolatzaileek sariak eta saridunen irudi zein nortasuna publizitate moduan erabiltzeko eskubidea izango dute modu zehaztugabeen eta epe mugagabeen.

- Parte hartzen duen erabiltzaileak ziurtatu egiten du lehiaketa honetarako eman dituen datu pertsonalak egiazkoak direla eta, baten bat aldatzekotan, datu-aldaketa jakinarazteaz arduratuko da.

Mundakako Udalak datuen tratamendu egokia bermatzen du Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Legearekin (DPBL) bat etorriz. Lege horretan ezarritakoa betez, jakinarazten dugu parte-hartzaileak edo erabiltzaileak emandako datu pertsonalak fitxategi misto batean tratatu eta sartuko direla eta fitxategiaren titular eta arduraduna Mundakako Udala dela. Fitxategiaren izena "Lehiaketen kudeaketa eta kulturaren eta turismoaren sustapena - BiscayTIK" da eta lehiaketak kudeatzea eta arte zein kulturaren alorreko jarduerak sustatzea du helburu.

Mundakako Udalak prozedurak gauzatzean konfidentzialtasuna aski babesteko eta datuak egokiro erabiltzeko konpromisoa hartzen du. Une oro indarrean dagoen legedia beteko du eta erabiltzaileek datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horiei aurka egiteko eskubidea izango dute Mundakako udaletxera bidalitako idatziaren bidez: Lehendakari Enparantza, zk/g (48360-Mundaka).

- Parte-hartzaileek berariaz ematen dute beraien izen-abizenak, argazkiak eta bideoak parte-hartzaile bakoitzaren micrositean argitaratzeko baimena, lehiaketako webgunearen bidez eta epe zehaztugabeen, hartara txapelketa behar bezala kudeatzeko. Halaber, parte-hartzaileek bideoen erabilera baimentzen dute txapelketa bera, Mundakako turismoa edo, oro har, antolatzaileak eta lehiaketan sartutako gainerako Administrazio Publikoak sustatzeko, oinarri hauetan jasotakoaren arabera.
- Datu pertsonalak ezabatzeko, aldatzeko, osatzeko, horiei aurka egiteko, ikusteko eta zuzentzeko eskubideak erabili ahal izango dira helbide honetan: Lehendakari Enparantza, zk/g (48360-Mundaka).
- Txapelketan parte hartzeak txapelketako oinarri guzti-guztien onarpena ekartzen du, baita epaimahaiaren epai apelaezinarena ere.

Mundakan, 2011ko azaroan.